

## **MOBILIZAZIOA, MURRIZKETEI ERANTZUTEN BIDE BAKARRA**

ELA, LAB eta STEE-EILAS sindikatuetakori berriri adierazi nahi du arbuiatu egiten dituela Eusko Jaurlaritzak Funtzio Publikoaren Negoziazio-Mahara ekarri dituen neurriak, eskubide laboralei eta zerbitzu publikoaren kalitateari erasotzen baitie. Halaber, sindikatu honek exigitzen du bete daitezela hitzarmen kolektiboan enpleguari eta lan-baldintzei buruzko konpromisoak. Gure salaketa are argiagoa da Eusko Jaurlaritzak agertu duen nagusikeria eta intransigentzia ikusirik: ez da gauza izan UGTekin eta CCOOekin ere ezer adosteko, hauek murrizketak negoziatzeko prest zeuden arren. Gertatutakoak frogatu du Jaurlaritzak helburu bakarra zuela, herri-administrazioko langileen lan- eta soldata-baldintzak murrizteko babesa izatea.

PSEk eta PPK Legebiltzarrean egin dituzten akordioek erakusten dute administrazioaren jarrera itxi hori; iritzi publikoa enplegatu publikoen aurka jarri nahi du, eta hauek ordain dezatela krisia, beraren ardurarik ez izanagatik ere. Jokabide arduragabe eta demagogiko horrek agerian uzten du gure agintarien maila eskasa.

Eskubide laboralen eta zerbitzu publikoaren kalitatearen kontrako oldar hau dela-eta, ELA, LAB eta STEE-EILAS sindikatuek lehen unetik erabaki zuen murrizketek eragindako sektoreak mobilizatzeko deialdia egitea. Mobilizazio hauek jarraipen handia izan dute, eta datozen asteetan gehiago izango dira.

Hain zuzen, gaur goizean Eusko Legebiltzarraren aurrean delegatuen elkarretaratzea egin da. Bera amaituta, ELA, LAB eta STEE-EILAS sindikatuetakori arduradunek salatu egin dute administrazioaren negoziatzeko borondate eza, eta hitzartutakoa ez betetzeaz gainera inolako lotsarik gabe negoziazio-mahaia hankaz gora jarri duela, bere murrizketak ezartzearen.

Gasteiz, 2011ko abenduaren 23a